AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

***Bigarrena.***– Agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 17a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

ERANSKINA

PRESAZ JARDUN BEHARREKO ALDE BEHARTSUAK.

1.– Ibaizabal Itsasadarraren Ezkerraldea: Abanto Zierbana, Alonsotegi, Barakaldo, Erandio, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapagaran, Zierbena.

2.– Oarsoaldea: Lezo, Oiartzun, Errentaria, Donostiako udalerriari dagokion lur-esparrua, Oarsoalderantz doan arroan dagoena.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– La presente orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda.***– Contra la presente orden podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de mayo de 2006.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

ANEXO

ZONAS DESFAVORECIDAS DE ACTUACIÓN URGENTE

1.– Margen del Nervión: Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbana, Alonsotegui, Barakaldo, Erandio, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Valle de Trápaga-Trapagaran, Zierbena.

2.– Bahía de Pasaia: Lezo, Oiartzun, Pasaia, Renteria, el territorio de Donostia-San Sebastián situado en cuenca vertiente a la Bahía de Pasaia.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## 2825

AGINDUA, 2006ko maiatzaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, fondo publikoekin lagundutako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia egiteko oinarrizko arautegia zehazten duena.

Ikastetxeek, beren autonomiaz baliatuz, haien irakaslanak planifikatzen eta antolatzen dituzte. Urte barruan irakaslan horiek burutzeko, beharrezkoa da ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia finkatzea.

Eskola-egutegi hauek burutu eta onartzeko kontuan hartu behar diren oinarrizko arauak zehazteko eskuduntza dauka Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak,

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

## 2825

ORDEN de 10 de mayo de 2006, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se fijan las normas básicas que han de regular la elaboración, en cada curso académico, del calendario escolar de los centros docentes de los niveles no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco sostenidos con fondos públicos.

Los centros docentes en ejercicio de su autonomía organizan y planifican sus actividades escolares. El desarrollo temporal de las mismas exige la fijación de un calendario escolar para cada curso académico.

Corresponde al Departamento de Educación, Universidades e Investigación fijar las normas básicas que han de tenerse en cuenta en la elaboración y aprobación de

ikastetxeen autonomia errespetatuz, beharrezkoa den antolakuntza eta pedagogi koherentzia bermatzeko.

Horiek horrela eta eman zaizkidan eskuduntzez baliatuz, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Xedea eta ezarpen-eremua.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta itunpekoetan ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia burutzeko arauak finkatzea da agindu honen xedea.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-mailetako araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publiko eta itunpeko guztiei ezarriko zaie agindu hau.

*2. artikulua.*– Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia.

1.– Haur Hezkuntza, eta Lehen Hezkuntzako mailetako ikasleek eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe espezifikoetakoek jasoko dituzten ikastorduak eta egunak, gutxienez 880 eta 176 izango dira, hurrenez hurren, abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuan Haur Eskoletarako xedatutakoari kalterik egin gabe.

2.– Aipatutako egunetatik «San José de Calasanz» eguna eta herri edo lurraldeko bi jaiegun bakarrik kendu ahal izango dira.

3.– Eguneroko ordutegian ezingo da 30 minutu baino gutxiagoko klaserik izan.

*3. artikulua.*– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

1.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitzaren iraupena 1.050 ordukoa izango da. Goiz eta arratsaldez emango dira eskolak (urtarrilaren 23ko 25/1996 Dekretuaren 5. artikuluan aurreikusitako salbuespenak izan ezik), gutxienez 175 irakastegunetan klase-jardunaldiak izango direlarik.

2.– Dagokion irakasmailako zaindariaren eguna eta ikasturtearen aurkezpena egiteko erabiliko den eguna (tutore, irakasle, programa, helburu, ordutegiak eta abar), klase-eguntzat hartu ahal izango dira.

3.– Aparteko deialdiko azterketak ekainean egingo dira, benetan irakasteko eskola-egunak amaitu ondoren.

*4. artikulua.*– Batxilergoa eta Heziketa Zikloak.

1.– Batxilergoan eta Heziketa Zikloetan, ikasturteak 175 irakastegunetako iraupena izango du gutxienez. Horretarako, klasea emateko egunak (160 gutxienez) eta ohiko eta aparteko deialdietako azken probak eta

estos calendarios, en orden a garantizar la necesaria coherencia pedagógica y organizativa compatible, en todo caso, con la autonomía de los centros.

En su virtud, y en uso de las facultades que me han sido otorgadas,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto y ámbito de aplicación.

1.– Es objeto de la presente orden fijar las normas que han de regular la elaboración, en cada curso académico, del calendario escolar de los centros docentes públicos y privados concertados de niveles no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– La presente orden será de aplicación en todos los Centros docentes públicos y privados concertados ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco que imparten enseñanzas de régimen general de niveles no universitarios.

*Artículo 2.*– Educación Infantil, Educación Primaria y Educación Especial.

1.– En los niveles educativos de Educación Infantil y Educación Primaria, y en los centros específicos de Educación Especial, el número de horas y días de docencia directa que recibirán los/as alumnos/as será como mínimo de 880 y 176 respectivamente, sin perjuicio de lo establecido para las Escuelas Infantiles en el Decreto 297/2002, de 17 de diciembre.

2.– De los días indicados sólo podrán deducirse el día de San José de Calasanz y hasta un máximo de dos días por fiestas locales.

3.– El horario diario no podrá contemplar sesiones de clase de duración inferior a 30 minutos.

*Artículo 3.*– Educación Secundaria Obligatoria.

1.– La duración de cada uno de los cursos de la Educación Secundaria Obligatoria, será de 1.050 horas, que se impartirán en un mínimo de 175 días de impartición efectiva de clases en jornadas de mañana y tarde, (salvo en las excepciones previstas en el artículo 5 del Decreto 25/1996, de 23 de enero).

2.– Podrán tener consideración de lectivos el día de la fiesta patronal del nivel correspondiente y el día dedicado a presentación del nuevo curso, (tutores/as, profesores/as, programas, objetivos, horarios, etc.)

3.– Las pruebas de la convocatoria extraordinaria se celebrarán en el mes de junio, una vez finalizados los días de impartición efectiva de clases.

*Artículo 4.*– Bachillerato y Ciclos Formativos.

1.– En el Bachillerato y en los Ciclos Formativos el curso escolar tendrá una duración mínima de 175 días lectivos. A estos efectos, tendrán la consideración de días lectivos únicamente los destinados a la impartición

ebaluazioak egiteko erabiltzen direnak soilik izango dira irakastegunak.

2.– Aipatutako klaseko 160 egunak irakasteko izango dira benetan, beraz ezingo dira gainditu gabeko irakasgaiak dituzten ikasleei azterketak egiteko erabili; ezta ebaluatze-batzordeak, klaustroak edo antzeko ekintzak egiteko ere. Dagokion irakasmailako zaindariaren eguna eta ikasturtearen aurkezpena egiteko erabiliko den eguna (tutore, irakasle, programa, helburu, ordutegiak eta abar) klase-eguntzat hartu ahal izango dira.

3.– Heziketa-zikloen egutegia egiteko ziklo bakoitzak zenbat iraungo duen hartuko da kontuan. Beraz, ez da nahikoa izango klasea emateko gutxienezko 160 egunak betetzea, baizik eta ikasle guztiek dagozkien heziketa-zikloen arauzko ordu guztiak jasoko dituztela ziurtatuko da.

4.– Batxilergoko maiatzeko eta ekaineko eskola-egutegia ikastetxeek erabakiko dute, kontuan harturik unibertsitatean sartzeko probak ekainaren erdi aldera (ohiko deialdia) eta uztailean (ez-ohikoa) egingo direla.

5.– Batxilergoko 2. kurtsoko ohiko deialdiaren azken probak eta dagozkien ebaluaketa-batzarrak egin eta gero, klaseak ematen jarraituko da, selektibitate-proba gertatzeko. Klase hauek ikastaldeko ikasle guztientzat irekita egongo dira, baita kurtsoa gainditu ez duten ikasleentzat ere. Egun hauek eta Batxilergoko aparteko deialdiari dagozkion azterketak prestatzeko erabili litezkeen egunak, klase-eguntzat hartuko dira.

*5. artikulua.*– Klaseen hasiera eta bukaera.

Agindu honek aipatutako hezkuntza-mailetan, klaseak ezingo dira dagokion ikasturteko irailaren 1a aurretik hasi, ezta ekainaren 30a baino beranduago bukatu ere.

*6. artikulua.*– Jaiegunak.

1.– Urte horretan Euskal Autonomia Erkidegoko egutegi ofizialean jai diren egunak, eta herri, lurralde eta dagokion irakasmailako zaindariaren egunak, jai hartuko dira eskola-egutegian.

2.– Dagokion herri edo lurraldeko zaindarien egunak laneko ez den egun batean ospatzen direnean, jaia ospatzeko beste egun bat hautatu ahal izango dute ikastetxeek, egun horren ordez. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Heziketa Zikloetan, egun horiek ezin izango dira inolaz ere benetako eskola-eguntzat hartu.

efectiva de clases, que deberán ser 160 como mínimo, y aquellos que se dediquen a la realización de las pruebas y evaluaciones finales de las convocatorias ordinaria y extraordinaria.

2.– Los 160 días de clase mencionados serán días de clase efectiva y no podrán suspenderse las clases para realizar exámenes a los/as alumnos/as con asignaturas pendientes, juntas de evaluación, claustros y otras actividades análogas. Pueden tener consideración de lectivos el día de la fiesta patronal del nivel correspondiente y el día dedicado a presentación del nuevo curso, (tutores/as, profesores/as, programas, objetivos, horarios, etc.).

3.– El calendario correspondiente a los Ciclos Formativos se establecerá teniendo en cuenta la duración de cada Ciclo. No será suficiente, por tanto, con establecer como mínimo los 160 días de impartición efectiva de clases, sino que habrá que garantizar que a todos/as los/as alumnos/as se les imparte el cómputo total de horas que corresponde reglamentariamente a cada Ciclo.

4.– Los centros determinarán el calendario lectivo de los meses de mayo y junio del Bachillerato teniendo en cuenta que las pruebas de acceso a la Universidad se celebrarán a mediados de junio (convocatoria ordinaria) y en el mes de julio (convocatoria extraordinaria).

5.– Una vez realizada la evaluación final de la convocatoria ordinaria en el segundo curso de Bachillerato, se seguirán impartiendo las clases como preparación para la prueba de Selectividad y estarán abiertas también a los/as alumnos/as suspendidos/as. Estos días tendrán la consideración de días lectivos, así como los días que se dediquen a la preparación de las pruebas correspondientes a la convocatoria extraordinaria de Bachillerato.

*Artículo 5.*– Comienzo y finalización de las clases.

En los niveles educativos a que se refiere la presente orden las clases no podrán comenzar, en ningún caso, antes del día 1 de septiembre ni finalizar después del día 30 de junio del correspondiente curso académico.

*Artículo 6.*– Días festivos.

1.– A efectos de la elaboración del calendario escolar, serán festivos los días que tengan tal carácter según el calendario oficial de fiestas laborales de la Comunidad Autónoma del año correspondiente, así como los días de las festividades patronales de la localidad, del territorio y del nivel educativo correspondiente.

2.– Cuando las festividades patronales de la localidad o del territorio correspondiente coincidan con un día no laborable, los centros podrán elegir otros días en su sustitución. En la Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato y Ciclos Formativos, estos días no podrán contabilizarse dentro del cómputo de los días de impartición efectiva de clases.

3.– Irakasmaila bateko zaindariaren eguna ez bada ez astelehena ez ostirala, egun horretatik hurbilen dagoen astelehenean edo ostiralean ospatu ahal izango da.

4.– Irakasmaila bat baino gehiagoko ikastetxeek egun berberean ospatu ahal izango dute irakasmaila guztien zaindarien jaieguna.

7. *artikulua.*– Oporraldiak.

1.– Eguberrietako oporraldiak abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra arteko aldia hartuko du gutxienez, bi egun horiek barne.

2.– Aste Santuko oporraldiak, Ostegun Santutik Pazko Astelehenera bitarteko aldia hartuko du gutxienez, bi egun horiek barne.

8. *artikulua.*– Eskola-egutegiak egitea eta onartzea.

1.– Urte bakoitzeko ekainaren 1a baino lehen, ikastetxeen zuzendariek hurrengo ikasturterako eskola-egutegiaren proposamena bidaliko diote dagokion hezkuntza lurralde-ordezkaritzari, eskuduntza duen aginte-organoak onartu zuen bilerako aktaren kopiarekin.

2.– Irakasmaila bat baino gehiagoko ikastetxeak irakasmaila ezberdinei dagozkien eskola-egutegiak harmonizatzen ahaleginduko dira.

3.– Hezkuntzako Ikuskaritzak, egutegiak aztertu ondoren, egutegi bakoitzari txostena egingo dio.

4.– Ikastetxeren batek finkatutako epealdiaren barruan eskola-egutegiaren proposamena bidaltzen ez badu, edo bidalitakoa onartzen ez denean, hezkuntza lurralde-ordezkariak erabakitzen duena esleituko zaio.

5.– Behin hezkuntza lurralde-ordezkariak egutegiak onartu eta gero, Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta itunpeko guztiek bete behar dituzte, ikastetxearen zuzendariak betetzeko erantzukizuna izango duelarik eta betetzearen kontrola eta gainbegiratzea Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokiolarik.

6.– Ikasturte osoan ikastetxe bakoitzeko eskola-egutegia bertako iragarki-taulan jarri behar izango da erakusgarri, eta ezingo da inolaz ere aldatu hezkuntza lurralde-ordezkariak idatziz onartu gabe, aurretik dagokion aginte-organoak eskabidea aurkeztu eta Hezkuntzako Ikuskaritzak aldeko txostena eman ondoren.

9. *artikulua.*– Eskola-egutegia aldatzea.

1.– Ezinbestez klase-egun kopurua gutxituko balitz, berregokitu egin beharko da egutegia aipatutako egun kopurura iritsi arte, beti ere langileen eskubideak errespetatuz. Nahiz eta egunen batean ikasle batzuk edo ikasle guztiak klasera ez joan, ikastetxeak klaseak ofi-

3.– Cuando la fiesta patronal de un determinado nivel educativo no coincida con un lunes o un viernes, podrá ser trasladada al lunes o viernes más próximo al día de su celebración.

4.– Aquellos centros que imparten más de un nivel de enseñanza podrán unificar en un solo día la festividad patronal de los diferentes niveles impartidos.

*Artículo* 7.– Periodos vacacionales.

1.– Las vacaciones de Navidad comprenderán al menos el período comprendido entre el día 24 de diciembre y el 6 de enero, ambos inclusive.

2.– Las vacaciones de Semana Santa incluirán al menos los días comprendidos entre el Jueves Santo y el Lunes de Pascua de Resurrección, ambos inclusive.

*Artículo 8.*– Elaboración y aprobación del calendario.

1.– Antes del día 1 de junio de cada año, los/as Directores/as de los Centros remitirán la propuesta de calendario escolar del próximo curso a la Delegación Territorial de Educación correspondiente, incluyendo copia del acta de la sesión en que fue aprobada por el Órgano de Gobierno competente.

2.– Los centros que impartan diversos niveles de enseñanza procurarán armonizar los calendarios correspondientes a los mismos.

3.– La Inspección de Educación procederá a informar de todos y cada uno de los calendarios, previo estudio de los mismos.

4.– En el caso de que algún Centro no remita su propuesta de calendario dentro del plazo señalado, o no se apruebe su propuesta, se le adjudicará de oficio el calendario que fije el/la correspondiente Delegado/a Territorial de Educación.

5.– Los calendarios, una vez aprobados por el/la Delegado/a Territorial de Educación, serán de obligado cumplimiento para todos los Centros públicos y privados concertados de la Comunidad Autónoma siendo responsabilidad del Director o de la Directora del Centro su cumplimiento y correspondiendo a la Inspección de Educación la supervisión y control de su aplicación.

6.– El calendario de cada Centro debe estar expuesto durante todos el curso escolar en el tablón de anuncios del mismo y en ningún caso podrá ser modificado sin el permiso escrito del correspondiente Delegado Territorial de Educación, previa solicitud del Órgano de Gobierno competente e informe favorable de la Inspección de Educación.

*Artículo 9.*– Modificación del calendario.

1.– Si por razones de fuerza mayor se viese disminuido el número de días de clase, se reajustará el calendario para completar el número de días previsto, respetando en cada caso los derechos laborales de los/as trabajadores/as. Las ausencias de los/as alumnos/as de las

zialki programaturiko ordutegiaren arabera eskaintzen jarraitu behar izango du.

2.– Egutegia berregokitu behar denean, hasieran egiteko erabili zen prozedura berbera jarraituko da.

3.– Dagokion aginte-organoak ez badu berregokitze proposamenik egiten, Hezkuntzako Ikuskaritzak egin dezan eskatuko dio. Horretarako hamar egun epea izango du ikastetxeak. Ikastetxeak finkatutako epealdiaren barruan eskola-egutegiaren proposamen berria bidaltzen ez badu, edo bidalitakoa onartzen ez denean, hezkuntza lurralde-ordezkariak erabakitzen duena esleituko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Hezkuntza sailburuordeari eta Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeari baimena ematen zaie, agindu honetan xedatutakoa aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren arauak emateko.

***Bigarrena.***– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 10a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

clases, incluso en el caso de ser colectivas, no deben impedir al Centro seguir ofertando las clases según los horarios oficialmente programados.

2.– En los casos de reajuste del calendario se seguirá el mismo procedimiento que en la elaboración inicial del mismo.

3.– Si el Órgano de Gobierno competente no hiciese la propuesta de reajuste, la Inspección de Educación demandará su elaboración en el plazo máximo de diez días. Si el centro no remite su nueva propuesta de calendario dentro del plazo señalado, o no se aprueba la misma, se le adjudicará de oficio el calendario que fije el/la correspondiente Delegado/a Territorial de Educación.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Se autoriza a los Viceconsejeros de Educación y de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente a dictar cuantas disposiciones sean precisas para la aplicación y desarrollo de lo dispuesto en la presente orden.

***Segunda.***– La presente orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de mayo de 2006.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

## OSASUN SAILA

## 2826

AGINDUA, 2006ko maiatzaren 8koa, Osasun sailburuarena, Zirkulazio Aparatuko Gaixotasunei buruzko Euskadiko Aholku Kontseilua sortzeko dena.

Maiatzaren 24ko 121/2005 Dekretuz Osasun Saileko Aholku Kontseiluen araubidea ezarri zen, zeinaren helburua adituen aholkularitza lortzea baita; zertarako eta, irtenbide aukerak eta osasun arazoei aurre egiteko irtenbiderik egokienak aukeratzerakoan, inplikatutako sektoreen interesak ponderatzeko.

Sanitatean jarduteko premiarik gehien duen alorretariko bat, 121/2003 Dekretuan ere hala aitortu dena, zirkulazio aparatuko gaixotasunena da, 2002-2010 Euskadiko Osasun-Planean jasotakoaren arabera.

Zirkulazio aparatuko gaixotasunak, batik bat gaixotasun koronarioa eta garunetako odol-hodietako istri-

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## 2826

ORDEN de 8 de mayo de 2006, del Consejero de Sanidad, por la que se crea el Consejo Asesor sobre las Enfermedades del Aparato Circulatorio en Euskadi.

Mediante Decreto 121/2005, de 24 de mayo se establece el régimen de los Consejos Asesores del Departamento de Sanidad con la finalidad de obtener un asesoramiento experto que pondere las diferentes alternativas de solución y los intereses de los distintos sectores implicados en la adopción de las soluciones más adecuadas para afrontar una problemática de salud.

Una de las áreas de actuación sanitaria prioritaria reconocida por el Decreto 121/2005 son las enfermedades del aparato circulatorio, en consonancia con lo previsto en el Plan de Salud de Euskadi 2002-2010.

Las enfermedades del aparato circulatorio, en especial la enfermedad coronaria y los accidentes cerebro